

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**AZKOITIKO UDALA**

*Iragarkia*

Azkoitiko Udaleko Araudi Organikoaren 5. artikulua aldaketaren jendaurreko informazioko legezko epea igaro ondoren, erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez, ondoko testuaren arabera behin betiko onartu da:

**AURREKO TESTUA**

«5. artikulua. Maiztasuna.

Udalbatzak hilabete bakoitietako azken ostegunetan egingo du Ohizko bilkura, beti ere jai eguna izango ez balitz eta eztabaidatzeko punturik balego. Bilkura eguna jai egun gertatuko balitz, aurreko Bilkuran erabakiko da zein egunetan egin.

Udalbatzaren Ohizko Bilkuretarako deia gutxienez bi egun lehenago egin beharko da».

**IDAZLAN BERRIA**

«5. artikulua. Ohiko bilkuren maiztasuna.

Udalbatza Plenoak hilero bilduko da ohiko izaeraz, abuztuan eta abenduan ezik. Ohiko bilkuren eguna eta ordua legealdi bakoitzeko Antolakuntza Plenoak ebatziko ditu. Halaber, legealdian zehar, Udalbatza Plenoak finkatu ahal izango ditu ohiko bilkeren eguna eta ordua.

Bilkura eguna jai egun gertatuko balitz, aurreko Bilkuran erabakiko da zein egunetan egin.

Udalbatzaren Ohiko Bilkuretarako deialdia gutxienez bi lanegun lehenago helarazi behar zaie korporazioko kideei».

Azkoitia, 2015eko irailaren 14a.—Alkatea. (8076)

**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

*Anuncio*

Habiendo finalizado el plazo de información pública de la modificación del artículo 5 del Reglamento Orgánico Municipal de Azkoitia sin que se haya presentado reclamación alguna, se considera aprobado definitivamente según el siguiente texto:

**TEXTO ANTERIOR**

«Artículo 5. Frecuencia.

El Pleno celebrará Sesión Ordinaria los últimos jueves de cada mes impar, siempre que no sea festivo, en cuyo caso se determinará en la sesión de Pleno previa el día de celebración, y haya asuntos que tratar.

Las Sesiones Ordinarias se convocarán, al menos, con dos días hábiles de antelación».

**NUEVA REDACCIÓN**

«Artículo 5. Frecuencia de los Plenos ordinarios.

El Pleno de la Corporación celebrará sesiones ordinarias mensualmente, excepto en agosto y en diciembre. El día y la hora de las reuniones ordinarias serán establecidos por el Pleno de Organización de cada legislatura. Así mismo, durante la legislatura el Pleno de la Corporación podrá establecer el día y la hora de las sesiones ordinarias.

En caso de que el día de la sesión coincida con un día festivo, se acordará en la sesión previa el día de su celebración.

Se deberá convocar a los miembros de la Corporación al menos con dos días laborables de antelación».

Azkoitia, a 14 de septiembre de 2015.—El alcalde. (8076)